

“AITITAREN FUSILA”



Joxe Manuel zaharra haritzezko aulkian eseri zen.

– Arratsean bilduko al dira?

– Bai aitita (aitona bizkaieraz), baina lehenago desfilatzen ikusiko ditugu!

Joxe Mañuel zaharra haritzezko aulkian eseri zen. Bere gerriko zabaleko zimurduren artetik tabako hosto batzuk atera zituen. Mende luzeetako atzerape-na zeraman begirada bilobarengan pausatzen. Neskaxaren begi argietatik barneratu zitzaion, baita bere pentsamenduak ere ikuitzeko asmoz. Argi-engan (honela baitzuen neskaxak izena) ez zen barnebakea, kezka eta penekin nahastu.

Aspaldian erabakitako betebeharrak tinkotasuna eman zien heldutasun eta arrazoiz beteriko bere keinu eta hitzei. Joxe Mañuelek kapatxaz inguratutako hosto mingotsezko zigarroa amaitu zuen. Argik, su aurrean makurtuz, gona gorria bildu zuen, eta aitonari txingar bihurturiko sagarrondoko ardaxka legorra eskaini zion.

Haritzezko zurean landutako musu zahar hura, ezberdin eta aurkako sentimenduz hunkitu zen. Guda, euskaldunon arteko itxaropenik irmoen eta ziurrena ereitera zetorren. Begirada goxo eta betiko bakearen Euskadi, guda baten alabarik kuttunena izango baitzen. Neskaxak, jator eta garden, zakarki landutako leihoaren marko iluna ireki zuen. Mokobelarrek, buztinezko poto borobiletan sarturik, euren usain ederrak aideratzen zituzten.

Kokotsa, txarru itxurako bere ahur okertuen zurtasunean ipini zuen. Nork ez zituen holako usoak ikusi zeru urdin batean murgilduriko teila gorrietan? Halabeharrez, Argiren irudimena gogoetaren hegal azpian babestu zen. Arrazaren izpitirruak sortarazi zituen ikustezinezko zirrarez pentsatu zuen. Urrezko euri xehe itxurako den arratsaldeko aire garbiak, artaburuen hostoak urratzen zituen.

Borroka oihuek ez zuten gazteria ustekabez zauritzen, eta gazteak bolondres gisa joaten ziren. Ahulezia sendotasunez jantzi zen, eta izuak, laguntzailé gisa, adoreari dei egin zion. Euskal kausari laguntza emateaz ez da zalantzarik egon, kontrakoa lotsagarria bailitzateke. Urte luzeak ziren euskal gazteriak bere ideala landurik zuela, eta egiaren ordua iristean ez zuen atzera egin nahi izan. Argiren burutik mendigoizaleen taldeak igaro ziren. Heroismoa armoniaz zegoen arrazaren betiko baloreen ezagupenekin. Neskaxaren

ezpainek Ibonen oroimena laztandu zuten. Han, lehenengo ilaran ikusten zuen, kopeta erne eta argi bizia begietan.

Holako gauzei buruzko gogoetak trixtura goxo batean amildu zuen neska. Leihoak itxi zituen. Aititak eserita jarraitzen zuen.

– Aitita! –galdetu zion– nola hasi zen karlistada?

– Haiek beste garaiak ziren kutuntxu. Guk Jaungoikoarengan genuen fedea.

Joxe Mañuelen hitz sakonek ez zuten adierazpen onik eman. Agian ez ote zituzten komentueta hor-mak defendatzen? ez ote ziren horrela ibiltzen mutil txapelgorri haiek? Bere errukiak ezkilen zurrumurru urruna zekarren.

– Atoz lilitxu! –esan zion aitona–

Pasilua iluna zen oso. Angelu batean kutxa zahar bat ezkututzen zen. Hezetasunak beratutako zur herdoilduzko txitxirrioen artean ireki zuen. Barruan oso gauza bitxiak zeuden: Mogelen liburuak, argizaizko gurutzeak, abarkak eta nekazal munduko tresnak.

– Zer erakutsi nahi zidan aititiak?

Isilunea egin zen. Aitita berriro makurtu zen. Hondoko iluntasunean ezkutaturiko ohola altxatu zuen. Ezer gutxi zen bertan gordetzen zuena. Hegal zabaleko eta ponpoi haundiko txapel gorria. Joxe Mañuelek bere kaxko zurian kokatu zuen.

– Hirurogeita hamabiko oroimenak dakarzki –esan zuen harrotasunez–


Berriro gazte ikusten zuen bere burua, kutxa hartan gordetzen zen fusila berriro hartzeko pronto. Argik ilun begiratu zuen burni herdoildu hura.

– Zenbat hil zenituen aitita?

– Ez nuke jakingo. Nobleziaz borrokatu genuen.

Aititaren burutik, Enkarterrietan barrena emandako gerrilen garaiak igaro ziren. Ordun gaztea zen, eta adore haundiz jasan zuen mendietako hotza.

– Fusil honek gatazka zelaietara itzuli beharra dauka. Aintzaz beterik itzultzean, gorde egingo dugu betiko. Bai laztantxu, nire eskuak dardaraz daude, zahar minak jota, baina zure edertasunarengana luzatzen diren beste indartsuago batzuek hartu beharko dute!



Borroka oihuek ez zuten ustekabez gazteria zauritu, eta gazteak bolondres gisa joaten ziren.



Gerra egin ziguten. Eta euskaldunok gerrara abiatu ginen.

Kaletik zetorren builak aititaren hitzak urratu zituen. Desfilea zen, eta balkoira irten ziren. Gazte sendo eta sasoitsu batek ikurriña zerman. Berarengan ez zen zalantza isladatzen, garaipena geurea baitzen. Joxe Mañuelek irmoki hartu zuen fusila. Argik, desfilatzen ari ziten guztiak ezagutu zituen. Sutondoetan gelditzen ziren guraso zaharrak, ama alargunak, ... inork ez zuen neska hura gibeltzen. Euren biziak, eta gehien maite zutena, aberria alegia, defendatzeko, txistua eta danborina, zenbait eskupeta eta balarik gabeko pistolak zeramazkiten, ez besterik. Berajen ustez, kanta batek etsaiak atzerantz bota zitzakeen, metrailadore batek egingo lukeen baino askoz hobeto agian.

Joxe Mañuelek, puztuta, hamalau zirudien. Konfidantza haundia zuen bere buruaz. Eta konfidantza honek segurtasunez bete zuen Argi. Bai, fusila emanen zion Iboni. Ibon!!! bere izen bakarra, neskaren bihotza gainezkatzten zuen iturria zen. Inork ezin izango zion aurre egin, hamaika borrokaldi garailetan beti irabazle suertatu zen fusil hari. Beste neska askok ezin izan zioten senargaiari holakorik eman, zapi brodatua edota txamarra, ez besterik. Baina bera Ibonengana hurbilduko zen, eta fusila emanen zion.

– Enetxu! –bota zuen aititak hasperenen artean– gure balkoi azpitik pasatzen denean emaiozu fusil zahar hau, bere besoetan bizi berria hartuko baitu!

Gazte eta gudatalde gehiago ari ziren pasatzen, etengabeki, bata bestearen atzetik. Kalea jendez gainezka zegoen. Batzuek txalo egiten zuten, besteek nigar edota parra, edota hiru gauzak batera asko eta askok. Argik Ibon ikusi nahi zuen denon buruan, propaganda egitean ibiltzen zen moduan. Mitinetan eta ibilaldietan bera, abertzale on gisa, beti lehenengo ilaran ibiltzeko izaten baitzuen ohitura.

Gero eta gudari gehiago ari ziren igarotzen. Horietako asko eta asko arront ezezagunak egiten zitzaizkienak. Argik, urduri, hogeit bat adliz atera zuen bere zapia. Izu bitxi batek estutzen zuen bere arnasa. Bukaera alderantz begiratu zuen.

Arratsaldea laino bilakatu zitzaion, eta ezin izan zuen horren gogo biziz itxaroten zuena ikusi. Zenbaitetan betazalak igurtzi zituen, baina alferrik. Zenbeste bolondres, zenbeste gizon eta izen ezezagun! eta beraien bihotzetan aberriaren zirrara, Euskadiren hiltzoria.

– Oraindino ez al da pasa? –itaundu zuen aititak–

Biloba isildu zen. Ez zuen itxaropenik galtzen. Ibon abertzalea baitzen, Euskal Herriaren alde baita bizia ere emateko prest zegoen horietakoa. Neskari malkoak irteten zitzaizkion, baina kaleko txalo, algara eta oihuek nigarrari loratzeko bidea mozten zioten. Maiatzeko sirimiriaren artean oso eguzki ederrak berotzen zuen. Fusila dardarreko dantzan ari zen bere esku urdurien artean. Uso zauritua zen. Neska guztiek irripar gozoa luzatzen zieten beren senargaiei. Arratsaldearen urdintasunean, irripar, musu eta begiradak bidaltzen izkieten.

Eta igaro ziren denak, denak Ibon ezik. Balkoian, eskuetan fusila zuen neska ederra, bakar-bakarrik gelditu zen. Begiak lainoturik zituen.

Bere bihotzean hilberria zen zerbait zuen. Argik leihar baten kraskadaren antzeko soinu fina aditu zuen bere barnean. Bere maitasunaren kopa hustu berria zegoen. Aititak samurtasunez heldu zuen. Atea itxi zen. Argik ez zuen malkorik isuri, eta eztiki esan zion armari: "Zuk ez dituzu garaipenera eramango zintuzteen besoak ezagutu, eta nire amodioak ez du gerran lore odoltsurik ezagutuko!".

Aititak, goibel begiratu zion. Kaltearen sakontasunaz jakin zuen, baina bere biloba ederraren irriparrak liluraturik geratu zen.

– Aitita, fusil honek ez du deustarako balio. Arras herdoildurik dago. Karlistak bai pobreak izan zirela!

– Pobreak bai, baina berehala abiatu ginen gurea defendatzera. Ez zen gizonik etxean gelditu!

Joxe Mañuelek ez zuen kutxan berriro gorde nahi izan, hainbeste urtetan ezkutaturik egondako errelikia. Txikitu zuen fusila eta surtara bota. Suak kixkali zuen!



Eta igaro ziren denak, denak Ibon ezik. Argi zain gelditu zen, begiak lainoturik, eta aititaren fusil zaharra esku artean zuelarik.



Esteban Urkiaga "Lauaxeta" dugu ipuin honen egile.

LAUAXETA

GUDARI - 4. ZENBAKIA

Bilbo, 1937ko apirilak - 8

(erdaraz argitaratua)

euskaratzailea: JOSEBA ZABARREKO